

IRABAZI ITURRIAK

Enpresa bat aurrera eramateko ezinbestekoak dira diru iturriak, horiek gabe enpresek ezingo lukete aurrera jarraitu eta denbora jakin baten ondoren itxi egin beharko liriateke. Aurrekoari lotuta, gure enpresaren diru iturriak takilen salmentatik eta horiek behar duten mantenuen kostutik lortutako dirutik eskuratuko ditugu.

Prezioak ere kontutan izan beharreko beste gauza bat dira. Hauek aldakorrek edota finkoak izan daitezke eta gure kasuan produktuen prezioa finkoa izango da ez dugulako merkatuaren arabera preziorik aldatuko nahiz eta erositako takila kopuruaren eta zerbitzuaren arabera prezioa aldatzen den.

Proiektua gauzatzeko dugun diruari lotuta erabaki dugu taldean lau partaide garenez, hasiera batean pertsona bakoitzaren inbertsioa 1200€-koa izatea. Horrez gain, Laboral kutxan mailegu bat eskatu beharra izango dugu, 15000€-oka hain zuzen ere. Banku hau aukeratzearen zergatia zera izan da; honek eskaini dizkigula baldintzarik onenak eta guretzako komenigarriena dela erabaki dugu, dirua epe luzean bueltatu dezakegu eta.



Zenbait gastu murrizteko helburuarekin, gure bezero nagusiarekin, udaletxearekin alegia, negoziatzea pentsatu dugu. Horretarako, bi proposamen eskainiko dizkiogu eta berak aukeratuko du zein den aukera egokiena berarentzat, eta horren baitan erabakiko du zein hautatu.

Gure takilen erabiltzaileei ere kobratu beharko diegu produktuaren erabilera gatik. Hasierako prezioa eta proiektua ondo badoa finkoa bihurtuko dena orduko 10 zentimokoa izango da, egun osoa erabili nahiko balute deskontu bat edukiko lukete eta 2 euroko preioa ordaindu beharko lituzke erabiltzaileak.

Lehenengo proposamena herri horretan irabazitako mozkinaren %20a (gehienez %30) udalari ematean datza, udalak trukean, ez digu berez ordaindu beharko geniokeen gastuak (jabegoa adibidez) ordaintzera behartuko. Kontutan izan behar da proposamen hau bioi etorriko litzaigukeela ongi; bai udalari eta bai guri, izan ere, udala bezeroak edukitzeaz eta dirua lortzeaz arduratuko litzatekeelako, horrela, irabazi horien arabera guk emango geniokeen diru kantitatea altuagoa edo

baxuagoa izango litzatekeelako. Makinak bezero asko baldin baditu, udalak, gastuetan inbertitutako dirua baino gehiago lortuko ditu, mozkinaren %20 a ematen badiogu.

Bigarren proposamenak berriz udalari gastu guztiak ordaintzea eta horregatik produktuaren irabazi guztiak guretzat izatean datza. Proposamen honetan ere kontuan eduki beharra dago bi aldeei ongi datorkigula adibidez, udalari ongi datorkio lursaila, jabetza eta beste gastu guztiak guk ordainduko ditugulako eta aldi berean guri ongi datorkigu irabazien %100 enpresari bideratuta egongo delako.